

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Enpresa Ekonomia

USE 2020

www.ehu.eus



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2020ko EZOHIOA

ENPRESAREN EKONOMIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2020

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Azterketa honek bederatzi galdera ditu (zortzi 2 puntukoak eta bat 4 puntukoa).

Erantzuteko, bi aukera dituzu:

- **bi puntuko bost galderari erantzutea**
- **bi puntuko hiru galderari eta lau puntukoari erantzutea**

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea

1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderari:

FAGOR ARRASATEK ALEMANIAKO **MERKATU** ZORROTZEAN **SARTZEA** LORTU DU.

Mondragon Taldeko kooperatibak Alemania merkatuan hazten jarraitu nahi du. Horretarako, instalazio berri bat zabaldu du, herrialde horretako bezero askori zuzenean zerbitzua emateko.

Alemanian bertan alemaniarrekin lehiatuko da, Hilpolstein herrian (Munich eta Nuremberg arteko erdibidean).

Fagor Arrasatek estanzazioan, txapa-ekoizpena, automobilgintza eta etxetresna elektrikoetarako piezen ekoizpenean... jarduten du, baina haren produktu ospetsuena karrozeriak moldekatzeko prentsa erraldoiak dira. Hor irabazi du estatusa kooperatibak hain zorrotza den estatuan, eta bere lehiakideei garrantzizko **merkatu-kuotak** kentzea lortu du.

Audi, Liebherr, Bosch... enpresek Arrasaten, Markinan, Zamudion eta Donostian ekoizturiko eta diseinatutako prentsak dituzte beren ekoizpen-kateetan.

Dena den, makinaren salmenta garrantzizkoa bada ere, hura bezain garrantzitsua da salmenta osteko konponketa- eta kudeaketa-zerbitzua. Eta premia hori asetzerak dator Hilpolsteingo lantegia. Instalazio hori irekitzea, beraz, kooperatibaren **apustu estrategiko** bat da hazten jarraitzeko. Alemaniako lantegiaren funtzioa zerbitzu hori azkar eta eraginkorki ematea da, **bezeroen fideltasuna** lortzeko helburuarekin.

Galderak:

- a) Defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko terminoak.
- b) Azaldu itzazu kooperatibaren ezaugarriak.



2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

2017. urtean, enpresa batek 1.500.000 pieza ekoitzi zituen. Horretarako, 9 langile zituen. Langile bakoitzak, urtean, 1.610 orduz lan egin zuen. 2018. urtean, 3 langile berri kontratatu zituen enpresak, haietatik bat lanaldi erdian, eta aurreko bederatzia mantendu zituen, eta ekoizpena % 25 igo zen. 2018an urteko lanaldi osoa 1.600 ordukoa izan dela kontuan izanik:

- Kalkula ezazu bi urte horietako bakoitzean zein izan den produktibitatea lan egindako ordu bakoitzeko.
- Kalkula ezazu 2018. urteko lanaren produktibitatearen aldaketa-tasa 2017. urtekoarekiko eta azaldu emaitza eta horren zergati posibleak.

3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

KORRITXE enpresak kontabilitate-informazio hau aurkeztu du:

- Hornitzaileak 29.000 €
- Bankuko kontu korrantea 500 €
- Epe laburreko zorrak 6.000 €
- Makineria 99.000 €
- Bazkideen ekarpenak 66.550 €
- Ibilgetuaren amortizazio metatua 29.000 €
- Epe luzeko zorrak 29.000 €
- Erreserbak 900 €
- Bezeroak 23.000 €
- Izakinak 37.000 €
- Ekitaldiaren emaitza?

Aurreko datuak kontuan hartuta,

- Egin ezazu enpresaren balantzea eta kalkulatu ekitaldiaren emaitza.
- Kalkula ezazu errotazio-funtsa (maniobra-funtsa), eta interpreta ezazu grafiko baten laguntzaz.

4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

CASEMIRO SA enpresak maletak fabrikatzen ditu. Iaz, salmentak 680.000 € izan ziren, kostu finkoak 140.000 € eta etekinak 160.000 €. Ekoiztutako eta saldutako maletak 4.000 unitate izan ziren.

Eskatzen da:

- Puntu hila edo errentagarritasun-ataria kalkulatzeko eta adierazpen grafikoa egitea.
- Maleta bakoitzak lau gurpil ditu. Gurpil bakoitza 8,5 €-an erosten zaizkio beste enpresa bati. Orain, eurek ekoiztea pentsatzen ari dira. Horretarako, 80.000 €-ko inbertsioa behar da, eta gurpil bakoitzaren fabrikazio-kostu aldakorra 3,5 € litzateke. Kalkula ezazu zenbat maletarako den errentagarriagoa ekoiztea erostea baino.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2020ko EZOHIOA

ENPRESAREN EKONOMIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2020

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- c) Maletak fabrikatzeko materialak garestitu dira; horren ondorioz, unitateko kostu aldakorrak % 10eko gorakada izan du. Zein izan behar luke salneurriaren gorakada etekinak iazko berdina izateko, kontuan izanda ekoizpena ere iazko mailan mantendu nahi dela?

5. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

Garmendia jaunak urtarrilaren 16an Euskaltelen 200 akzio erostea erabaki zuen. Kotizazioa, egun horretan, 7,37 € zen akzio bakoitzeko.

Garmendia jaunak, martxoaren 1ean, akzioak saltzea erabaki zuen. Kotizazioa, egun horretan, 8,12 € zen. Euskaltelek 0,30 €-ko dibidendua banatu zuen urtarrilaren 31n.

Kalkulatu:

- Garmendia jaunak eragiketa horrekin lortutako errenta.
- Lortutako errentagarritasuna
- Definitu: akzioa eta dibidendua.

6. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

KORR.men SA enpresaren plan estrategikoan ekoizpena handitzea da helburuetako bat. Horretarako, bi aukera aztertzen ari da:

A aukera: 125.000 €-ko inbertsio bat egitea lau urte iraungo duen 4.0 makina bat eskuratzeko. Aukera horrekin, aurreikusten da urtero 45.000 €-ko kostu finkoak eta aleko 16 €-ko kostu aldakorra izatea.

B aukera: Inbertsio bat egitea lau urte iraungo duten bi makina eskuratzeko: lehen makina 100.000 €-koa da, eta inbertsioaren hasieran ordaindu behar da; bigarrena 50.000 €-koa da, eta lehen urtearen amaieran ordaindu behar da. Aukera horrekin, urteko kostu totalak 72.000 €, 74.000 €, 77.000 € eta 80.000 € izango dira hurrenez hurren. Gainera, inbertsioaren amaieran lehen makina salduta, 10.000 € berreskuratuko lituzke.

Bi kasuetan, salmenta hauek aurreikusten dira: lehen urtean, 2.350 unitate, unitateko 45 €-an; bigarren urtean, 3.120 unitate, unitateko 47 €-an; hirugarrenean, 3.200 unitate, unitateko 49 €-an; eta azken urtean, 3.250 unitate, unitateko 50 €-an.

Inflaziorik gabe, % 6ko errentagarritasuna eskatzen da inbertsioentzat. Urteko inflazio-tasa metatua % 2,1 izango dela kontuan hartuta:

- Zer inbertsio aukeratu beharko luke balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
- Eta inbertsio bakoitzaren berreskuratze-eparearen (Pay Back) irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
- Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?



7. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Kontxi S KOOP enpresa automobilentzako ordenagailuak fabrikatzen aritzen da. Orain arte, ordenagailu bakoitzaren fabrikazioan Taiwanetik inportaturiko osagai bat erabiltzen du, eta unitateko 800 € ordaintzen du. Une honetan, osagai hori ekoiztea baloratzen ari da. Horretarako, aurreikusi du kostu finkoak 1.000.000 € izango direla eta unitate bakoitzeko kostu aldakorra 750 € izango dela

Kalkula ezazu:

- a) Zer kopurutatik aurrera errentagarriagoa da osagai hori ekoiztea erostea baino.
- b) Adierazi grafikoki aurreko ataleko datuak.
- c) Ekoizti beharreko ordenagailuak 24.000 badira, zenbatekoa izan behar du osagai horren erosketa-prezioak enpresa horrentzat ekoiztea zein erostea berdina izan dadin?

8. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 4 puntu.

PAKOTE SA enpresak auto elektrikoak fabrikatzen ditu. Abenduaren 31n ondare-elementu hauek ditu:

1. Lantegiak 240.000 € balio du; haietatik, % 30 lurrari dagokio.
2. Auto elektrikoak egiteko biltegiratutako motorrek 13.200 € balio dute.
3. Motorren hornitzaileei 23.600 €-ren fakturak zor dizkie.
4. Eskudirutan 6.000 € ditu.
5. Hiru urte barru ordaintzeko mailegua dauka, 140.000 €-koa.
6. Lantegian egindako konponketa baten faktura zor du, 1.200 €.
7. Bezeroek 41.000 €-ren fakturak zor dizkiote.
8. Makineria erosteagatik, fakturak zor ditu; zortzi hilabete barru, 48.000 € ordaindu behar ditu.
9. Bezeroek onartutako kanbio- letrak ditu, 50.000 €-an baloraturik.
10. Erreserba legalak: 66.000 €
11. Zenbait bankutako kontu korranteetan 40.000 € ditu
12. Autoak fabrikatzeko duen patentea 73.000 €-koa da.
13. Biltegian saltzeko dituen auto elektrikoak: 26.000 €
14. Enpresaren makineriak 140.000 € balio du.
15. Ibilgetu materiala 91.400 €-an amortizatuta dago
16. BEZarengatik Ogasunari 20.000 € zor dizkio
17. Motorren hornitzaileei 43.000 € zor dizkie kanbio-letratan.
18. Bazkideen ekarpenak: XXXX

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko, irudikatzea eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2020ko EZOHIOA

ENPRESAREN EKONOMIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2020

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- Altxortegia
- Likidezia
- Bermea
- Ibilgetua
- Zorpetze osoa

9. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Gaur, beste egun batez, txanda bakoitzeko lau orduko lanuzteak egitera deituta daude Bilbobuseko langileak, **hitzarmen kolektiboa** aldarrikatzeko.

Urtearen amaieran, Bilbobuseko langileek ezezkoa eman zioten CCOOk, UGTk eta USO **sindikatuak** BioBide enpresarekin lortutako aurreakordioari, eta eutsi egin zieten mobilizazioei.

Galderak:

- a) Defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko terminoak.
- b) Zer da negoziazio kolektiboa eta zein da emaitza?
- c) Zer da lanbide arteko gutxieneko soldata?

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

ENPRESAREN EKONOMIA

Irizpide Orokorrak

Probak bederatzi galdera ditu (2 puntuko zortzi eta 4 puntuko bat). Bi puntuko bost galderari erantzun behar zaie, edo, bestela, bi puntuko hiru galderari eta lau puntukoari. Erantzunak puntuatzeko orduan, irakasleek ebaluatuko dute ea Eusko Jaurlaritzaren 2009ko otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuan Enpresaren Ekonomia irakasgairako gaitasun gisa azaltzen diren helburuak lortu diren ala ez.

2 puntuko galderen artean, hauek daude:

- Ekonomiari buruzko dibulgazio-testu bat, hedabide sozialetatik hartua, eta eskatzen da edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea. Galderetan, termino batzuk aurkeztutako testuan zer esanahi duten azaltzea eskatzen da, edo testuarekin erlazioa duen argudio ekonomikoren bat azaltzea. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.
- Galderetan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarrizko teknikak jakitea balioesten da. Teknika egokiak menderatzea eta lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko dira.
- Galderetan, ekonomiaren arloko terminoen ezagutza eta termino horien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Balantze-analisi bat ere egiten da proban. Galdera horrek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desoreka eta desdoitze posibleak hautemateko gai izatea. Bereziki balioetsiko da ikasleak emaitzen zentzu ekonomikoa ulertu eta interpretatzea. Akats aritmetikoen kasuan, ikasleak egiten duen arrazoibidearen ebaluazioak lehentasuna izan behar du zenbakizko emaitzaren zuzenketaren aldean.

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratzeko-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie hauei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea,

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehieneko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoen analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoen arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.

Irizpide espezifikoak

1. GALDERA

a) **Merkatuan sartzea:** Enpresek beren ekoizpen-ahalmena handitzeko erabiltzen duten barne-hazkuntzako era bat, produktu gehiago saltzen saiatzea. Kasu honetan, merkatu berrietara heltzea (Alemaniara)

Merkatu-kuota: Aldi jakin batean enpresa jakin bati produktu baten zer kantitate dagokion. Formula honen bidez adierazten da:

$(\text{Enpresaren Merkatua} / \text{Merkatu Osoa}) \times 100.$

Fagorrek Alemaniako bere lehiakideei bezeroak kendu dizkio.

Apustu estrategikoa: Helburu jakin batzuk lortzeko ekintza-plan orokorra. Kasu honetan, helburua hazten jarraitzea da, eta egin duen apustua Alemaniako merkatura zabaltzea izan da.

Bezeroen fidelitasuna: Enpresa batek ekoiztutako ondasun edo zerbitzuak bezeroek zer maiztasunekin erosten duten. Eroste-maiztasuna handia bada, bezero fidelak izango dira.

b) **Kooperatiba** atxikimendu librean eta borondatezko bajako erregimenean elkartzan diren pertsonen osatutako sozietate bat da, enpresa-jarduerak egitera bideratua kideen beharrak eta helburu sozial eta ekonomikoak asetzeko, eta egitura eta funtzionamendu demokratikoa duena. Emaizta ekonomikoak bazkideei egozten zaizkie, funts komunitarioen premiei erantzuna eman ondoren. (Mondragon Kooperatiba).



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Horrelako sozietateak erabilgarriak dira xede komun bat lortzeko bere bazkideen kolaborazioa helburu duten enpresetarako, elkarri laguntzeko eta banatu ezin den ondare komun bat sortzeko oinarriaren gainean.

Sozietate kooperatiboa eskritura publiko bidez eratzen da. Kapital soziala bazkideen ekarpenek osatuko dute. Estatutuetan finkatuko da zein den gutxieneko kapitala kooperatiba eratzeko eta funtzionatzeko, eta kapital horrek erabat ordainduta egon behar du eratzen den unetik.

Lehen graduko kooperatibetan, bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoa ezin izango da izan kapital sozialaren heren bat baino gehiago, salbu eta irabazteko asmorik gabeko entitateak edo gehienbat kooperatibez osatutako sozietateak direnean.

Bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenekin bakarrik erantzungo diote sozietatearen zorrei, ekarpena osorik ordainduta egon zein ez egon.

2. GALDERA

2017. urtea:

Ekoizpena = 1.500.000 unitate.

Ekoizpen-baliabideak = 9 langile x 1.610 ordu/urteko

Produktibitatea 2017 = Ekoiztutako kantitatea / Ekoizpen-baliabideen kantitatea

Produktibitatea 2017 = 1.500.000 unitate / 9 langile x 1.610 ordu = 103,52 unitate/langile-ordu

2018. urtea:

Ekoizpena = 1.500.000 unitate x 1,25 = 1.875.000 unitate

Ekoizpen-baliabideak = (9+2) langile x 1.600 ordu + 1 langile x 1.600 ordu / 2

Produktibitatea 2018 = Ekoiztutako kantitatea / Ekoizpen-baliabideen kantitatea

Produktibitatea 2018 = 1.875.000 unitate / 11 langile x 1.600 ordu + 1 langile x 1.600 ordu / 2 = 101,90 unitate / langile-ordu

Aldakuntza-tasa = (Produktibitatea 2018 - Produktibitatea 2017 / Produktibitatea 2017) x 100 = (101,9 - 103,52 / 103,52) * 100 = -% 1,56

% 1,56 jaitsi da produktibitatea 2017. urtetik 2018. urtera, langile berriekin produktibitate eskasagoa lortzen delako. Hori gerta daiteke esperientzia gutxiagoko langileak edo kualifikazio txikiagokoak direlako. Edo gerta liteke langileek behar luketen eritmoaren azpitik lan egitea.

3. GALDERA

a)



**ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN**

AKTIBOA

Aktibo ez-korrontea	70.000
Makineria	99.000
Ibil. Amort. metatua	-29.000

Aktibo korrontea	60.500
Izakinak	37.000
Bezeroak	23.000
Bankuak	500

AKTIBOA GUZTIRA 130.500

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Ondare Garbia	66.500
Kapital soziala	66.550
Erreserbak	900
Emitza: galerak	-950

Pasibo ez-korrontea	29.000
Epe luz. mailegua	29.000

Pasibo korrontea	35.000
Hornitzaileak	29.000
Epe laburr.	
Zorra	6.000

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA 130.500

b) Maniobra-funtsak enpresaren finantza-oreka zehazten du. Ondare garbiak gehi pasibo ez- korronteak aktibo korrontearen zati bat finantzatzen dute.

Maniobra-funtsa = Aktibo korrontea – Pasibo korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea.

Enpresa honen kasuan, maniobra-funtsa hau da:

Maniobra-funtsa = 60.500 – 35.000 = (66.500 + 29.000) – 70.000 = 25.500 euro

Aktibo ez-korrontea 70.000		Ondare garbia 66.500
		Pasibo ez-korrontea 29.000
Aktibo korrontea 60.500	MF 25.500	Pasibo korrontea 35.000

Oreka finantzarioan dago: epe laburreko ondasun eta eskubideekin, epe laburreko galdagarriari aurre egin diezaioke; epe luzeko finantzazioak ia izakin guztiak finantzatzen ditu.

4. GALDERA

Iazko Salmentak = 680.000 €

Kostu Finkoak = 140.000 €

Etekinak = 160.000 €

Ekoizpena = 4.000 maleta

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

a)

$$\text{Salneurria} = \text{Salmentak/Kopurua} = 680.000/4.000 = 170 \text{ €}$$

Kostu aldakorrak:

$$\text{Etekinak} = \text{Diru-sarrerak} - (\text{Kostu finkoak} + \text{kostu aldakorrak})$$


$$160.000 = 680.000 - (140.000 + \text{Kostu aldakorrak}); \text{ Kostu aldakorrak} = 380.000 \text{ €}$$

$$\text{KAu} = \text{Kostu aldakorrak} / \text{Ekoizpena} = 380.000/4.000 = 95 \text{ €}$$

Errentagarritasun-ataria:

$$Q = \text{KF}/(\text{P}-\text{KAu}) = 140.000/(170 - 95) = 1.867 \text{ maleta}$$

Kopuru horretatik aurrera, enpresak etekinak izango ditu.



Salmenta horiekin (1.867 unitate), enpresak ez du lortzen ez etekinik ez galerarik. Gehiago salduz gero, etekinak lortuko lituzke, eta 1.867 unitate baino gutxiago ekoiztu eta saltzen baditu, galerak.

b)

$$\text{KF} = 80.000 \text{ €} \quad \text{KAu} = 3,50 \text{ €} \quad \text{P} = 8,5 \text{ €}$$

$$Q = \text{KF}/(\text{P} - \text{KAu}) = 80.000/(8,5 - 3,5) = 16.000 \text{ gorpil (4.000 maleta)}$$

16.000 unitatetik gora, merezi dio berak ekoiztea. Maleta bakoitzak 4 gorpil dituenaz, 4.000 maleta baino gehiago ekoizten baditu, gorpilak berak ekoiztea merezi dio.

c)

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

$$\text{Etekinak} = 160.000 \text{ €} \quad \text{KAu} = 95 + \% 10 (95) = 104,5 \text{ €}$$

$$160.000 = 4000 \times P - 140.000 - 104,5 \times 4.000 \quad P = 179,5 \text{ €}$$

$$\text{Prezioaren hazkundera} = (179,5 - 170)/170 = 0,0558 = \% 5,58$$

Maleten prezioak % 5,58 igo beharko litzateke 160.00 €-ko emaitzari eusteko.

5. GALDERA

a) Burtsako eragiketa honetan lortutako errenta kalkulatzeko, alde batetik, akzioen salerosketan lortutako emaitza kalkulatu behar da, eta, bestetik, dibidenduak emandakoa:

$$\text{Salerosketan: } 200 \text{ akz} \times (8,12 - 7,37) = 150 \text{ €}$$

$$\text{Dibidendua: } 0,30 \times 200 \text{ akz} = 60 \text{ €}$$

$$\text{Eragiketa honetan lortutako errenta guztira: } 150 + 60 = 210 \text{ €}$$

b)

$$\text{Egindako inbertsioa: } 200 \text{ akz} \times 7,37 = 1.474 \text{ €}$$

$$\text{Lortutako errentagarritasuna: } = \frac{\text{Errenta}}{\text{Inbertsioa}} \cdot 100 = \frac{210}{1474} \cdot 100 = \% 14,25$$

c)

Akzioa: Sozietate anonimo baten kapitalaren zati alikuota. Akzioen jabeak, akziodunak, enpresaren jabe dira, eta era askean sal ditzakete beren akzioak. Inbertsio gisa, errenta aldakorrekoa da. Enpresaren finantzaketa propioan sartzen dira, enpresaren kapitala osatzen baitute.

Dibidendua: Enpresak bere akziodunei akzio bakoitzeko banatzen dien irabazien zatia da. Batzar Nagusian zehazten da, enpresak izan dituen etekinak kontuan hartuta.

6. GALDERA

$$\text{eguneratze-tasa} = (1+0,021) \cdot (1+0,06) = 1,08226$$

a) BEG irizpidea

A aukera



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

$$D_0 = 125.000\text{€}$$

$$F_1 = 2.350ux45 - (45.000 + 16x2350) = 23.150\text{€}$$

$$F_2 = 3.120ux47 - (45.000 + 16x3120) = 51.720\text{€}$$

$$F_3 = 3.200ux49 - (45.000 + 16x3200) = 60.600\text{€}$$

$$F_4 = 3.250ux50 - (45.000 + 16x3250) = 65.500\text{€}$$

-125.000	23.150	51.720	60.600	65.500
0	1	2	3	4

$$BEG_I = -125.000 + \frac{23.150}{1,08226} + \frac{51.720}{1,08226^2} + \frac{60.600}{1,08226^3} + \frac{65.500}{1,08226^4} = 36.096.05 \text{ €}$$

B aukera

$$D_0 = 100.000\text{€}$$

$$F_1 = -50.000 + (2.350x45 - 72.000) = -16.250$$

$$F_2 = 3.120x47 - 74.000 = 72.640\text{€}$$

$$F_3 = 3.200x49 - 77.000 = 79.800\text{€}$$

$$F_4 = 3.250x50 - 80.000 + 10.000 = 92.500\text{€}$$

-100.000	-16.250	72.640	79.800	92.500
0	1	2	3	4

$$BEG_{II} = -100.000 + \frac{-16.250}{1,08226} + \frac{72.640}{1,08226^2} + \frac{79.800}{1,08226^3} + \frac{92.500}{1,08226^4} = 77.378.3 \text{ €}$$

b) PAY BACK irizpidea:

Pay Back I: 1. urtean 23.150 € berreskuratzen dira

2. urtean 51.720 € berreskuratzen dira

3. urtean 50.130 € falta dira berreskuratzeko

$$\frac{60600}{12 \text{ hilabete}} = \frac{50130}{x}$$

$$x = 9.92 \text{ hilabete}$$

GUZTIRA: 125.000 € = D_0

Bi urte eta 9,92 hilabete beharko lituzke hasierako ordainketa berreskuratzeko

Pay Back II 1. urtean -16.250 € berreskuratzen dira

2. urtean 72.640 € berreskuratzen dira

3. urtean 43.610 € falta dira berreskuratzeko

$$\frac{79800\text{€}}{12 \text{ hilabete}} = \frac{43610}{x}$$

$$x = 6.56 \text{ hilabete}$$

GUZTIRA: 100.000 € = D_0

Bi urte eta 6,56 hilabete beharko lituzke hasierako ordainketa berreskuratzeko

c) BEG irizpideari jarraituz, B inbertsioa aukeratu behar luke, fluxu garbiak gaur egungo balioetan balioetsirik 77.378,3 €-ko irabaziak lortuko lituzkeelako, A aukeran baino gehiago.

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Pay Back-aren irizpidea kontuan hartuz, B inbertsioa aukeratu beharko luke, denbora gutxiago behar lukeelako hasierako ordainketa berreskuratzeko.


BEG irizpidea (Balio Eguneratu Garbia) har dezake, hau da, inbertsio bakoitzak zer etekin emango lukeen kalkulatzeko, gaur egungo balioetan balioetsita. Irizpide horri jarraitzen badiu, metodo dinamikoa dela jakin beharko luke, hau da, kontuan hartzen duela denbora pasatu ahala dirua balioa galduz doala.

Pay-back-aren irizpideari jarraituz gero, hau da kalkulatzeko zenbat denbora behar duen aukera bakoitzean hasierako ordainketa berreskuratzeko, metodo estatikoa dela jakin beharko luke, hau da, ez duela kontuan hartzen denbora pasatu ahala diruak balioa galtzen duela. Beraz, irizpide egokiena BEG da, dinamikoa delako.

7. GALDERA

a) Ekoizpen-ataria $\rightarrow Q^* = KF / (P - KA_u) = 1.000.000 / (800 - 750) = 20.000$ osagai

b) ErK = Erosketa-kostua EkK = Ekoizpen-kostua



c) Ekoizpen-ataria $\rightarrow Q^* = 24.000$ osagai

$$Q^* = KF / (P - KA_u)$$

$$24.000 = 1.000.000 / (P - 750) \rightarrow 24.000 P - 18.000.000 = 1.000.000 \rightarrow$$

$$\rightarrow P = 19.000.000 / 24.000 = 791,67 \text{ €}$$

8. GALDERA

a) Egoera-balantzea



**ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN**

AKTIBOA		PASIBOA ETA ONDARE GARBIA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	361.600	ONDARE GARBIA	195.000
IBILGETU IMMATERIALA	73.000	Erreserba legala	66.000
Patentea (jabetza industrial)	73.000	Kapital soziala	196.000
IBILGETU MATERIALA	221.600		
Eraikinak	168.000		
Lurrak	72.000	PASIBO EZ-KORRONTEA (Epe/luz zorrak)	140.000
Makineria	73.000	Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak	140.000
I.M.A.M.	(-91.400)		
AKTIBO KORRONTEA	176.200	PASIBO KORRONTEA	135.800
IZAKINAK			
Lehengaiak	13.200	Hornitzaileak	23.600
Produktu bukatuak	26.000	Hartzekodunak	1.200
ZORDUN KOMERTZIALAK eta EPE LABURREKO INBERTSIOAK		Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak	48.000
Bezeroak	41.000	Ogasun Saila, hartzekoduna	20.000
Bezeroei kobr. merk-efektuak	50.000	Hornitzaileei ordain. merk-efektuak	43.000
ERABILGARRIA			
Kutxa	6.000		
Bankua k/k	40.000		
AKTIBOA GUZTIRA	470.800	PASIBOA ETA ONDARE GARBIA	470.800

Kapital sozialaren balioa = 196.000 €

Maniobra-funtsak enpresaren finantza-oreka zehazten du. Ondare garbiak gehi pasibo ez-korronteak aktibo korrontearen zati bat finantzatzen dute.

Maniobra-funtsa = Aktibo korrontea – Pasibo korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea

Maniobra-funtsa = 176.200 – 135.800 = (195.000 + 140.00) – 294.600 = 40.400 €

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Emaitza positiboa denez, egoera finantzario egonkorra adierazten du; epe luzeko finantzaketak aktibo ez-korrontea baina handiagoa da, eta, beraz, aktibo korrontearen zati bat ere (zehazki, 40.400 €) finantzatzen du.

b)

Finantza-analisia:

- Altxortegia = $\frac{\text{erabilgarria} + \text{zordun komertzialak eta epe laburreko inbertsioak}}{\text{Pasibo korrontea}}$

$$D = \frac{(46.000 + 91.000)}{135.800} = 1,008$$

Enpresak epe laburreko zorrei aurre egiteko baliabideak ditu; kasu honetan, nahiko **likidezia eskasa du**; kutxan, bankuan eta zordun komertzialei kobratzeko dituen eskubideekin, 137.000 € ditu, eta epe laburrean 135.800 € ordaindu behar ditu.

- Likidezia = $\frac{\text{Aktibo korrontea}}{\text{Pasibo korrontea}} = \frac{176.200}{135.800} = 1,29$

Enpresak badauka epe laburreko kaudimena (edo zorrak kitatzeko gaitasuna): epe laburrean dituen inbertsioak, (izakinekin, kobratzeko dituen eskubideekin eta erabilgarriarekin) 176.200 € dira, eta epe laburreko zorrak 135.800 € (**Ozta-Ozta dauka epe laburreko kaudimena**)

- Bermea = $\frac{\text{Aktibo erreala}}{\text{Pasiboa (korr + ez-korr)}} = \frac{470.800}{275.800} = 1,707$

Ratio honek **epe luzeko kaudimena** adierazten digu; kasu honetan, enpresaren epe luzeko kaudimena nahikoa da: enpresaren ondasun guztiak 470.800 €-an baloraturik daude, eta zor guztien balioa nahiko txikiagoa da (275.800 € zor ditu guztira)

- Zorpetze osoa = $\frac{\text{Pasiboa (korr + ez-korr)}}{\text{Ondare garbia}} = \frac{275.800}{195.000} = 1,41$

Emaitza horrek adierazten du enpresa **zordunduta** dagoela. Enpresaren zor guztiak 275.800 € dira, eta norberaren funtsak 195.000 € dira. Beraz, enpresak **ez dauka finantza-autonomiarik inbertsio**-erabakiak hartzeko, hartzekodunen garrantzia handia baita.

9. GALDERA

- a) **Hitzarmen kolektiboa**: Enpresa bateko, enpresa talde bateko edo sektore bateko enpresa baten eta langileen arteko akordio baten ondorioz sortzen den araua da.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Sindikatura: Langileen elkarte bat da, langile horiek dituzten interes komunak defendatzeko sortua. Langileen aldarrikapen ekonomiko, sozial eta politikoak defendatu eta lortzea dute helburu.

- b) **Negoiazio kolektiboa**: lantegi, enpresa edo enpresa talde batean jarduera zer baldintzatan garatuko den adosteko, langileen eta enpresaburuen artean akordio bat lortzeko abiarazten den prozesua. **Eta hitzarmen kolektiboan gauzatzen da.**
- c) **Lanbide arteko Gutxieneko Soldata(LGS)**: lanaldi osoz jarduten duen pertsona batek jaso dezakeen gutxieneko ordainsaria da, lanbidea edozein dela ere.

2020